

Lea Artibai Ikastetxeak, bere jardunean, ezinbesteko helburutzat jotzen ditu BEZEROEN, PERTSONEN eta INGURUNEAREN premiak asebetetzea eta horretarako apustu garbia egiten du kalitateari, inguruneari eta laneko osasun eta segurtasunari dagozkien politikak ezartzearen alde:

- Kalitatea eta bikaintasuna lortzeko bidean, eta etengabeko hobekuntzaz baliatuta, Ikastetxea prozesu bidez kudeatzen da, eta prestakuntzari dagokion atala ISO9001 arauaren arabera kudeatzen da. Horren guztiaren oinarrian alderdi hauek daude: bezeroa eta alde interesatuak pozik egotea eta hala mantentzea eta baliabideak eraginkorki erabiltzea.
- Lea Artibai Ikastetxearen oinarrizko printzipioa da, halaber, Pertsonen osasuna eta segurtasuna babestea. Horretarako, Ikastetxeak bertan egin ohi diren prozesu eta jardueretako prebentzioa eta segurtasuna bermatzeko kudeaketa-sistema garatu du.
- Ingurugiroa zaintzea eta babestea ere Lea Artibai Ikastetxearen konpromisoetako bat da, ingurugiroarekiko inpaktua minimizatuz eta ingurugiroaren jasangarritasuna etengabe bilatuz.

Halaber, Lea Artibai Ikastetxearen kudeaketa sisteman hizkuntza-politika integratuta dago, non lanerako hizkuntza euskara dela ezarri dugun, eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzeko konpromisoa bere gain hartzen du zuzendaritzak.

Politika hori zehaztuz, zabalduz eta ezarriz, erakunde osoak ulertzeaz gain, Zuzendaritzaren asmoak, honako hauek dira:

1. Barneko eta kanpoko bezeroen eskaerei etengabe eta kalitatez erantzutea, pertsonen osasuna bermatuta eta ingurunea errespetatuta. Betiere, jarduerak ingurunean izan dezaketen eragina gutxituz, prebentzioa areagotuz eta baliabideak ondo planifikatuz.
2. Era berean, kalitateari, laneko arriskuen prebentzioari eta ingurugiroari dagozkien legeak eta arauak eskatzen dutena betetzeko konpromisoa hartu dugu.
3. Ikastetxearen jardueran pertsonen osasuna zaintzea, eta osasuneko, segurtasuneko edo ingurumeneko arriskuei prebentzioaren bidez aurre egitea, arriskuak identifikatuz eta kontrolatuz.
4. Kalitatea, laneko arriskuen prebentzioa eta ingurugiroarekiko errespetua, gauzatu eta sortu egiten da kudeaketa-prozesu bakoitzean eta lanpostu bakoitzean. Beraz, alderdi horiek **langile guztion** erantzukizuna dira, Zuzendaritza aitzindari izaki. Hori lortzeko, ezinbestekoa da Lea Artibaiko kide guztiek elkarlanean aritzea, konprometitzea eta parte hartzea. Eta Zuzendaritzak baliabideak jarriko ditu bertoko langileek beharrezkoak diren prestakuntza-ekintzetan parte har dezaten.
5. Lea Artibaik etengabeko hobekuntza sustatzen du. Horren ildotik, Prebentzioaren kudeaketak lehenetsuna izango du eta antolakuntza etengabe hobetzeko prozesuaren barnean sartu beharko da. Zuzendaritzak konpromisoa hartzen du, ezarritako bideen bitartez lortzen diren emaitzen berri emateko langile guztiei.
6. Gure hornitzaileak gure kudeaketa-katearen partaide bihurtuko ditugu eta kalitatea eta segurtasuna bermatzeko ekintzak bete ditzaten eskatuko diegu. Halaber gure hizkuntza politika eta emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko konpromisoa ere adieraziko diegu.
7. Kalitatearen, ingurugiroaren eta pertsonen segurtasun eta osasunaren arloan dagoen legeria eta araudia betetzeko konpromisoa, bai eta alderdi interesdunen batek borondatez sinatutako edo ezarritako beste betekizun batzuk betetzeko konpromisoa ere.
8. Ingurugiroa babestea eta kutsadura prebenitzea, enpresaren jardueraren garapenetik eratorritako ingurumen-alderdiak identifikatuz, ebaluatuz eta kontrolatuz. Sortutako hondakinak ere kudeatuko dira, betiere lege ezarritakoa betez, eta ahal den guztietan berrerabiltzeko, birziklatzeko eta balorizatzeko erabiliko dira.

Hortaz, Zuzendaritzak hobetzen jarraituko duela hitzematen du eta konpromisoa hartzen du politika hori bultzatzeko, indartzeko eta betetzeko beharrezkoak diren baliabideak lortzeko eta, bezeroengan, pertsonengan zein inguruan izan daitezkeen bilakaeretara egokitzeko.

Markina- Xemein, 2025ko urria r en 21 a

Noelia Barruetaña Arriaga
Lea Artibai Ikastetxeko zuzendari nagusia